

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO
<b>INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO</b>
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Galdarak berritzeko Nafarroako Gobernuari diru-laguntzak eskatzeko epea irekiko da ostiral honetan

*300.000 euroko aurrekontua da eta diru-laguntzak 400 eta 800 euro artean daude, egiten den inbertsioaren arabera*

Jueves, 16 de junio de 2011

Ostiral honetatik, ekainak 17, eta abenduaren 15a bitarte, edo dauden funtsak agortzen diren arte, zabalik izango da galdarak aldatzeko Nafarroako Gobernuak ematen dituen 400 eta 800 euro arteko diru-laguntzak eskatzeko epea. 300.000 euroko aurrekontua da eta eskaerak haiek aurkezten diren ordenaren arabera ebatziko dira.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean gaur argitaratu den [deialdiak](#) galdara zaharren orde z eraginkorrakoak diren berriak jartzea du xede (lau izarretakoa, erregaiaren azpiko bero-boterearen gaineko % 104 baino handiagoko gehieneko errendimenduarekin eta Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutuko ([IDAE](#)) galdara eraginkorren datu-basean azalduko direnak. Neurria diseinatu da etxebizitza eta lokaletan berogailu, gas eta ur beroan energia-kontsumoa murrizteko, segurtasuna handitu eta galderen parkea modernizatzeko.

Zehazki, Galdaren Renove Planaren diru-laguntzek 400 euroko diru-laguntza jasotzen dute (gutxienez 1.200 euroko inbertsioa eginda) galdara edo berogailu indibidualen edo atmosferikoen orde 70 kW baino potentzia handiagokoak ez diren kondentatutako galdara hermetikoak jartzeko; eta 800 eurokoa (gutxienez 3.000 euroko inbertsioa eginda) berogailu elektrikodun galdaren orde (metagailuak/erradiadoreak) kondentsazioko galdara hermetikoak eta 70 kW baino potentzia txikiagoa dutenak jarriz.

Onuradunak izan ahalko dute: 2011ko urtarrilaren 1a baino lehen Nafarroan bizi diren pertsona fisikoak, enpresak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, toki-erakundeak, jabeen erkidegoak eta gainerako pertsona juridikoak. Eskatzaile bakoitzeko jarduera bakarra diruz lagunduko da. 2011ko maiatzaren 11koa edo ondorengo den instalazio termikoko fakturak eta ziurtagiriak onartuko dira; izan ere, data horretan agortu ziren 2010eko galdaren Renove Planerako zeuden funtsak.

Interesdunek [instalazio-enpresa laguntzailerak](#) jo beharko dute eta NAN txartelaren kopia aurkeztu beharko dute pertsona fisikoa bada, edo IFKrena pertsona juridikoa bada. NAN txartelak Nafarroan bizi dela adierazten ez badu, errolda-ziurtagiria ere aurkeztu beharko du; bertan jasota geratu beharko da Foru Erkidegoan bizi dela 2011ko urtarrilaren ia baino lehenagotik eta, horrekin batera, diru-laguntza zer banku-kontutan egingo den ere adieraziko da.

Erakundeak, erosleak baldintzak betetzen dituela egiaztatzean,

eskaera informatikako aplikazioan erregistratuko du, eskatzaileari kopia bat emango dio eta galdararen prezioa osorik kobratuko du. Halaber, galdara kentzeaz eta berogailu elektrikoko aparatuak kentzeaz arduratuko da, eta baita haiek hondakinen baimendutako kudeatzaile bati emateaz ere.